



EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA GERRA-ARMA BEZALA

Ikastaro honetan Guatemalako emakumeen errealitatea ezagutuko dugu. Ulertuko dugu zein izan zen beraien errealitatea gatazka armatuan eta baita pobreziaren, desberdintasunen, arrazakeriaren eta patriarkatuaren ondoriozko egiturazko indarkeria ere, zeina ez baitzen amaitu gerrari amaiera eman zion bake-akordioaren ondoren.

Helburuak:

- Guatemalako emakumeen egoera ezagutzea eta ikusgai egitea, bereziki emakume indigena.
- Emakumeenganako sexu-indarkeriaren gainean kontzientzia sortzea.
- Emakumeen borrokak eta erresistentzia aldarrikatzea.

Tramitatzailea: Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Emakumearen Mahaiaren lankidetzaz.

Formatzailea: Cristina Chiquín Rodríguez.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako emakume interesatu guztiak.

Non eta noiz: ANDRETXEAn, 2020ko apirilak 25, larunbata.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara (4 ordu guztira).

Ikastaroaren prezioa:

- Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 8 €.
- Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 10 €.

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean egingo da, erreziboa helbideratuta.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 15 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: Gaztelaniaz.

Eskaera egiteko epea: 2020ko otsailaren 3tik 28ra arte (biak barne).

Eskaera egiteko tokiak eta orduak:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: www.eibar.eus Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki**:
 - **PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa**: matrikulazio epearen azkeneko egunean, otsailaren 28an, PEGORAn 14:30ak baino lehen egin beharko da inskripzio eskaera.
 - **ANDRETXEA**: matrikulazio epearen azkeneko egunean, otsailaren 28an, ANDRETXEAn eguerdiko ordu bata baino lehen egin beharko da inskripzio eskaera.



Aurkeztu beharreko agiriak:

- Ikastaroaren matrikula orria behar bezala beteta (PEGORAn, ANDRETXEAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2020ko martxoaren 11an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira. Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **martxoaren 11tik aurrera**.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Gizartekintza sailean (Berdintasun Zerbitzuan) egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 6an 13:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **martxoaren 11tik aurrera**.

Onartu diren pertsonen zerrenda argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.